

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	POLIMEROEN TRANSFORMAZIORAKO EKIPOEN BURUEN, MOLDEEN ETA MATRIZEEN KONFIGURAZIOA (Zeharkakoa)	Iraupena	40
		Baldintzatua	
Kodea	UF0724		
Lanbide-arloa	KIMIKA		
Lanbide-eremua	Polimeroen transformazioa		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Kautxua transformatzeko eragiketak	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Polimeroak transformatzeko makinak eta instalazioak prestatzea (Zeharkakoa).	Iraupena	140
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Polimeroak transformatzeko makinak eta instalazioen sistema mekanikoen, hidraulikoen, pneumatikoen eta elektrikoak eraginkortasuna, eta haien mantentze-lanak (Zeharkakoa)	Iraupena	70
	Polimeroen transformaziorako marrazketa teknika (Zeharkakoa)		30

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0326_2 gaitasun-ataleko LB1, LB3 eta LB5 lanbide-burutzapenekin, moldeen prestaketari dagokionez.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Polimeroen transformazioko eta moldaketako makinatan moldeak, matrizeak eta ekipoen buruak muntatzea eta doitzeta (eta desmuntatzea); lortu behar diren piezen kota nagusiak identifikatzea, eta moldearen edo matrizearen osaerak eta egindako lanak kota horietan zer eragin duten arrazoitzea.

EI1.1 Moldeak, matrizeak, torlojuak eta bestelakoak muntatzeko eta desmuntatzeko prozesuak gauzatzea edo prozesuetan parte hartzea, erreminta egokiak erabiliz.

EI1.2 Moldeak, matrizeak, torlojuak eta beste elementu batzuk ondo muntatuta daudela ziurtatuko duen eragiketa-multzoa deskribatzea.

EI1.3 Sortutako piezek planoan edo lan-argibideetan ageri diren kotak betetzen dituztela ziurtatzeko egiaztapenak deskribatzea.

EI1.4 Moldeak, matrizeak, torlojuak eta bestelakoak garbitzeko eta kontserbatzeko teknikak identifikatzea.

EI1.5 Kotak kontrolatzeko tresnak eta elementuak biltegitratzeko eta kontserbatzeko prozedurak deskribatzea.

A2: Polimeroak transformatzeko eta moldatzeko instalazio bateko segurtasun-elementuak deskribatzea, norbera babesteko ekipoen deskribatzea eta lehen mailako mantentze-lanetan kontuan hartu beharreko neurriak deskribatzea.

EI2.1 Ekipo osagarrietako eragiketetan eta lehen mailako mantentze-lanetan aplikatu beharreko segurtasun-arauak aztertzea.

EI2.2 Transformazio-makinak eta makina osagarrien segurtasun- eta babes-elementuak deskribatzea.

EI2.3 Mantentze-lan prebentiboaren segurtasun-kondizio espezifikoak deskribatzea.

EI2.4 Industria kimikoko fabriketako segurtasun-arau orokorrak azaltzea.

EI2.5 Lan-ingurunean ordena eta garbitasuna mantentzeko beharra justifikatzea, eta hondakinak ezabatzeko prozedura egokiak deskribatzea.

Edukiak

1. Polimeroak prozesatzeko buruen, moldeen eta matrizeen analisi funtzionala.

- Molde-, matrize-, buru-, torloju- eta bestelako tresna-motak.
- Moldeen, matrizeen, buruen, torlojuen eta bestelako tresnen osagaiak identifikatzea.
- Moldeko barrunbeen banaketa.
- Erauzketa-sistemak. Kontrairteerako sistema bereziak.
- Sentsoreak. Ibiltarte-amaierak.
- Molde eta matrizeen muntaketa eta desmuntaketa. Jokoak eta doikuntzak.
- Buru, torloju eta bestelako tresnen muntaketa eta desmuntaketa. Jokoak eta doikuntzak.
- Molde, matrize, buru, torloju eta bestelako tresnen kontserbazioa eta garbiketa.

2. Polimeroak prozesatzeko elikatze-, hozte- eta berokuntza-sistemak

- Elikatze-sistemak. Isurbideak, kanalak eta sarbideak.
- Hozte-kanalak. Konfigurazioa eta dimentsionatzea.
- Berokuntza-sistemak (erresistentziak, olioak, eta abar).
- Berokuntza-, hozte-, elikatze- eta dosifikazio-sistemen muntaketa.

3. Polimeroen transformazioko instalazioetako segurtasuna eta lehen mailako mantentze-lanak.

- Lan-inguruneko segurtasun-kondizioak.
 - Arrisku fisikoak eta kimikoak.
 - Arrisku elektrikoak.
 - Arrisku ergonomikoak eta jarrera-arriskuak.
- Makinetako nahitaezko babesak. ▫ Makinei buruzko errege-dekretua.
- Norbera babesteko ekipoak. NBE-motak. Erabilera.
- Ordena eta garbitasuneko sistema, 5S.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestakuntza-atal hau egiteko gaindituak izan behar ditu UF0722 Polimeroak transformatzeko makinen eta instalazioen sistema mekanikoen, hidraulikoen, pneumatikoen eta elektrikoen eraginkortasuna, eta haien mantentze-lanak eta UF0723 Polimeroen transformaziorako marrazketa teknikoak

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Kautxua transformatzeko eragiketak.